



**OSALAN**

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

# EUSKADIKO ENPRESEN BEREZKO PREBENTZIO- ZERBITZUETAKO OINARRIZKO OSASUN-UNITATEEN MEMORIA

**EBALUAZIO TXOSTENA 2007**



Erakunde autonomiaduna  
Organismo autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Enplegu eta Gibeito  
Departamento de Empleo  
y Asuntos Sociales



9 771696 627000

Solneurria: 12 €



# EUSKADIKO ENPRESAKO PREBENTZIO ZERBITZUEN OINARRIZKO UNITATE SANITARIOEN OROITIDAZKIA

2007KO EBALUAZIO TXOSTENA



**OSALAN**

*Laneko Segurtasun eta  
Osasunerako Euskal Erakundea*

Instituto Vasco de Seguridad y  
Salud Laborales

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

Enplegu eta Gizarte  
Gaietako Saila

Departamento de Empleo  
y Asuntos Sociales

Argitaraldia: 2009ko maiatza

Ale kopurua: 500 ale

© OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea  
Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)

Egileak: Teresa Saez de Ocariz Diaz de Otazu  
Gregorio Caro Ruesgas  
M<sup>a</sup> Victoria Morente Gaita

Babes administratiboa: Begoña Saéz de Ibarra Fernández  
Magdalena Cueva Alonso  
Pedro Agudo Villarroel  
M.<sup>a</sup> Rosario Argüelles Campos  
Rosa M. Rego Vidal

Fotokonposizioa: HELVETICA PUBLICIDAD S.L.

Inprimaketa: Imprenta Sacal

ISBN: 1696-6279

D.L: VI-442/09



## AURKEZPENA

EAEko Enpresako Prebentzio Zerbitzuen Oinarrizko Unitate Sanitarioen Oroitidazkia aurkezten dugu; oroitidazkia egiteko, unitate horiek 2007an gauzatu dituzten jardueri buruzko datu aztertuak hartu ditugu abiapuntutzat.

Ezaguna denez eta aurreko aurkezpenetan aipatu denez, Datuen Gutxieneko Multzoa (DGM) prestatzeko lanarekin jarraitzen dugu. Etorkizunean, DGM hori izango da Prebentzio Zerbitzuen Oinarrizko Unitate Sanitarioek administrazioari aurkeztu beharko dioten dokumentazioa, oraingo informazioaren orde. Gaur egun, azterketa hau egiteko, gure Autonomia Erkidegoan onartuta dauden dokumentuak erabiltzen ditugu (Osasun Kontseiluaren 1992ko abenduaren 9ko Agindua, EHAAREN 252. zenbakian 92.12.29an argitaratua; errakuntzen zuzenketa: EHAAREN 21. zenbakia, 93.2.2koa).

Espero dugu informazio hau baliagarria izatea prebentzioaren aldeko kontzientzia soziala nolabait sortzeko, erronka kolektibotzat hartuta, zeregin horiekin zerikusia duten guztien sentikortasunaren bitartez; hori lagungarria izan beharko litzateke istripuen indizea murrizteko eta lan baldintzak hobetzeko.

Bukatzeko, emandako laguntza eskertzen diegu Unitate horietan aritzen diren pertsoneri; izan ere, haien laguntza izan ezean ezinezkoa izango zen oroitidazki hau argitaratzea.

**Pilar Collantes Ibañez**

OSALANEKO ZUZENDARI NAGUSIA



# AURKIBIDEA

---

AURKEZPENA.....	8
1. HITZAURREA .....	8
2. 2. URTEKO LABURPEN ESTATISTIKOEN AZTERKETA .....	8
2.1. OUSen Jarduna .....	9
2.2. OUSa duten enpresetako istripu-tasa .....	9
2.3. Baja ekarri zuten Laneko Istripuak .....	9
2.4. OUSa duten enpresetako lanbide-gaixotasunak.....	14
2.5. Osasun Adierazleak, Jarduera Ekonomikoari lotuta .....	14
3. LAN BALDINTZEN FITXEN AZTERKETA .....	20
3.1. Materiala eta Metodoak .....	20
3.2. Emaizak .....	21
3.3. Ingurune fisikoaren faktoreak .....	22
3.4. Zarata .....	24
3.5. Agente kimiko eta biologikoak .....	26
3.6. Faktore ergonomikoak .....	33
3.7. Emaizten baliozkotasuna .....	34
I. ERANSKINA .....	35
II. ERANSKINA .....	43
GRAFIKOAK.....	49



## 1. HITZAURREA

Ebaluazio txosten hau Oinarrizko Unitate Sanitarioek 2007an bidali zituzten 60 oroitidazkietan dago oinarrituta; Unitate horiek kreditatutako Enpresako Prebentzio Zerbitzuei dagozkie, eta honela banatzen dira lurraldeen arabera: 18 ARABARI dagozkio, 8 GIPUZKOARI eta 34 BIZKAIARI. 2007an, OUSen tutoretzapean egondako langileak 31.835 izan dira; horietatik, 24.638 (% 77,36) gizonezkoak ziren eta 7.197 (% 22,60) emakumezkoak.

Lan egindako orduak 46.966.751 izan dira, eta langile bakoitzak 1.475,31 ordu egin ditu urtean, batez beste.

## 2. URTEKO LABURPEN ESTADISTIKOEN AZTERKETA

Jarraian, EAEko OUSek 2007an aurkeztu dituzten 60 oroitidazkien Urteko Laburpen Estatistikoetan bildutako datuak erakusten dira.

### 2.1. OUS-EN JARDUNA

I. Taulan, Osasun Azterketen, Kontsuluten eta Ekintza Administrazioen alorrean egindako jarduerak islatzen dira. Bertan ikus daitekeenez, egindako osasun azterketak %102,29 inguru dira, guztira. Aldizkako miaketa orokorreari dagokienez, berriz, 37,5 azterketa egin dira 100 langile bakoitzeko; era horretan, azterketa espezifikoei parekatzen dira, zeren horiek 52,27 baitira 100 langile bakoitzeko. Aurreko urteetan bezala, miaketa espezifikoak aldizkakoak baino gehiago izan dira; diferentzia hori inoiz baino handiagoa izan da 2007an.

Medikuari edo OLT/EUDri egindako kontsultak bat baino askoz ere gehiago izan dira langile bakoitzeko, eta berdintsuak dira hiru Lurraldeetan.

Urteko jardura administrazioari dagokionez, 70,79 ekintza gauzatu dira 100 langile bakoitzeko.

<b>OUSen JARDUNA</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>RATIOA 100 LANGILE BAKOITZEKO</b>
<b>Osasun Azterketak</b>	<b>32.580</b>	<b>97,05</b>
Aurretikoak	2.528	7,56
Lanera itzultzean	1.457	5,67
Aldizkako orokorrak	11.946	37,5
Aldizkako espezifikoak	16.649	52,27
<b>Kontsultak</b>		
Medikua	87.672	275,26
Erizaintza	70.389	221
<b>Ekintza administrazioak</b>	<b>22.548</b>	<b>70,79</b>

I. Taula: Oinarrizko Unitate Sanitarioen jardueraren adierazleak, osasun azterketak, kontsultak eta ekintza administrazioak, kopuru orokorretan eta 100 langileko ratioetan.



## 2.2. OUSa DUTEN ENPRESETAKO ISTRIPU-TASA

### Laneko Istripuek eragindako ezintasuna

Guztira, 6.095 istripuren berri eman da; horien artean, 1.313 istripuk ezintasun graduren bat sortu zuten.

II. taulak OUSek deklaraturako istripuak erakusten ditu, langileak sexuaren arabera bereiziz. Ikus daitekeenez, urte horretan deklaraturako istripuen tasa hauxe da: gizonezkoen kasuan, 21,61 istripu 100 langile bakoitzeko, eta emakumezkoen kasuan 10,67 istripu 100 langile bakoitzeko. Urte horretan ez da heriotza-istripurik gertatu, ezta baliaezintasun handia ekarri duen istripurik ere.

Datu horiek aurreko urteetako datuekin alderatzen baldin baditugu, ikus daiteke istripu-tasak gora egin duela, bai gizonezkoen artean eta bai emakumezkoen artean; heriotza-istripuen tasak, aldiz, behera egin du, zeren ez baita inolako heriotza-istripurik gertatu.

EZINTASUN GRADUA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	Kopurua	100eko Tasa	Kopurua	100eko Tasa
Bajarik gabe	4.261	17,29	521	7,23
Ezintasun iragankorra	1.065	4,32	248	3,44
Ezintasun iraunkorra				
Partziala	0	0,00	0	0,00
Osoa	0	0,00	0	0,00
Absolutua	0	0,00	0	0,00
Baliaezintasun handia	0	0,00	0	0,00
Heriotza	0	0,00	0	0,00
<b>Istripuak, guztira</b>	<b>5.326</b>	<b>21,61</b>	<b>769</b>	<b>10,67</b>

II. Taula: Laneko istripuek eragindako ezintasun gradua, sexuaren arabera. Behatutako maiztasuna eta tasa -ehun langile bakoitzeko-.

## 2.3. BAJA EKARRI ZUTEN LANEKO ISTRIPUAK

### Langilearen adina

III. taulan ikus daitekeenez, arriskurik handiena 25 urtetik beherako langileen artean sortzen da, aurreko urteetan bezala. Eragina gazteen artean handiagoa izateak zenbait arrazoi izan ditzake: esperientzia txikia, aldi baterako kontratuak, informaziorik eza, prestakuntza prebentiborik eza, eta abar.



ADINA	Langile kopurua	Istripu kopurua	Tasa 100 langile bakoitzeko
16-20	65	3	4,61
21-25	1.289	66	5,12
26-30	3.613	175	4,84
31-35	5.333	236	4,42
36-40	4.790	206	4,30
41-45	4.282	175	4,08
46-50	4.259	171	4,01
51-55	4.290	157	3,65
56-60	3.096	114	3,68
61-65	797	11	1,38
66 edo gehiago	24	1	4,1

III. Taula: Baja eragin duten istripuen tasa, langileak adinaren arabera sailkatuz, datu osoak dituzten 65 enpresetan. Istripu eta langile kopurua tarte bakoitzean, eta adinaren araberrako tasak.



ISTRIPUAREN ORDUA	Istripu kopurua	%
<b>Ordu naturala</b>		
1.	40	3,04
2.	19	1,44
3.	30	2,28
4.	15	1,14
5.	20	1,52
6.	37	2,81
7.	44	3,35
8.	89	6,77
9.	124	9,44
10.	110	8,37
11.	94	7,15
12.	113	8,60
13.	70	5,33
14.	74	5,63
15.	70	5,33
16.	67	5,10
17.	71	5,40
18.	49	3,73
19.	32	2,43
20.	48	3,65
21.	39	2,97
22.	20	1,52
23.	31	2,36
24.	7	0,53
<b>Laneko ordua</b>		
1.	197	15,00
2.	206	15,68
3.	207	15,76
4.	189	14,39
5.	155	11,80
6.	138	10,51
7.	124	9,44
8.	75	5,71
8.garrenaren ondoren	22	1,67

IV. Taula: istripua noiz gertatzen den, ordutegi naturalaren arabera eta laneko ordutegiaren arabera. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresatan jasotako datuak.



### Istripua noiz gertatzen den

IV. taulak baja eragin duten istripuen tasa erakusten du, ordu naturalaren arabera. Ikus daitekeenez, maiztasuna handiagoa da 9. eta 12. orduen artean, aurreko urteetan bezala.

Laneko ordutegiari begiratzuz gero, 2. eta 3. lanorduan istripu gehiago gertatzen direla ikus daiteke, aurreko urtean bezala. Horrek ez digu erakusten zein den arriskurik handiena duen lanordua, zeren ez baitakigu zein den langileen kopurua lanordu bakoitzean.

Asteko egunari dagokionez, astelehenetan istripu gehiago gertatzen direla ikus daiteke, aurreko urteetan bezala (V. taula).

ASTEKO EGUNA	Istripu kopurua	%
Astelehena	270	20,50
Asteartea	245	18,65
Asteazkena	246	18,73
Osteguna	231	17,59
Ostirala	196	14,92
Larunbata	62	4,72
Igandea	63	4,99

V. Taula: Baja ekarri duten istripuak, asteko egunaren arabera. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresatan jasotako datuak.

Istripua gertatzen den hilabeteari dagokionez (VI. Taula), maiztasun handiena MARTXOAN ikusten dugu, eta gero urtarrilean; urteko gainerako hilabeteak berdintsuak dira, abuztua izan ezik.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa izango litzateke hilabete bakoitzeko lanorduen kopurua kontuan hartzea, horren bidez ikusteko ea hilabetearen batean istripu gehiago gertatzen ote den.

ISTRIPUAREN HILABETEA	Istripu kopurua	%
Urtarrila	134	10,2
Otsaila	123	9,36
Martxoa	145	11,04
Apirila	95	7,23
Maiatza	127	9,67
Ekaina	110	8,37
Uztaila	116	8,83
Abuztua	53	4,03
Iraila	106	8,07
Urria	120	9,13
Azaroa	115	8,75
Abendua	69	5,25

VI. Taula: Baja eragin duten istripuak, istripuen hilabetearen arabera. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresatan jasotako datuak.



## Istripua gertatzeko forma

VII. taulak istripuen kausa ohikoenak erakusten ditu. Aurreko urteetan bezala, baja eragin duten istripuen % 39,1 gehiegizko ahaleginengatik gertatu dira. Horren ostean, kausa nagusiak pertsonen maila bereko erorketak eta objektuek edo erremintek emandako kolpeak dira.

ISTRIPUA GERTATZEKO FORMA	Istripu kopurua	%
Gehiegizko ahaleginak	514	39,1
Objektuek edo erremintek eragindako kolpeak	123	9,36
Objektuek harrapatuta geratzea edo objektuen artean harrapatuta geratzea	119	9,06
Geldirik dauden objektuen kontra talka egitea	92	7,00
Pertsonak maila berean erortzea	95	7,23
Objektuen gainean zapaltzea	52	3,96
Mugitzen ari diren objektuen kontra talka egitea	66	5,02
Pertsonak maila desberdinean erortzea	73	5,55
Manipulatu ari diren objektuak erortzea	36	2,74
Harrapatuta geratzea makinak, traktoreak edo ibilgailuak iraultzearen eraginez	25	1,90
Beste batzuk	118	8,98

VII. Taula: Baja eragin duten istripuak eta istripu horiek gertatzeko forma. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresatan jasotako datuak.

## Lesioen deskribapena

Istripuek eragindako bajeen % 43,4 bihurrituen, zaintiratuena eta distentsioen eraginez sortzen dira. Horien ostean, maizen gertatzen direnak hauexek dira: beste zauri mota batzuk, kontusioak eta zapaldurak (VIII. taula).

LESIOEN DESKRIBAPENA	Istripu kopurua	%
Bihurrituak, zaintiratuak eta distentsioak	571	43,4
Beste zauri batzuk	159	12,10
Kontusioak eta zapalketak	133	10,12
Lunbagoa	135	10,28
Hezur-hausturak	120	9,13
Azaleko traumatismoak	76	5,78
Erredurak	17	1,29
Luxazioak	33	2,5
Kommozioak eta barne-traumatismoak	9	0,68
Begietan gorputz arrotzak sartzea	27	2,05
Bihotzekoak, burmuin-isuriak eta traumatikoak ez diren beste patologia batzuk	15	1,14
Beste batzuk	27	2,05

VIII. Taula: Baja eragin duten istripuak eta gertatutako lesioen deskribapena. Maiztasuna eta ehunekoa. 65 enpresatan jasotako datuak.



## Lesionatutako gorputz-atala

IX. taulan ikus daitekeenez, baja eragin duten istripuen % 22,23k eskuetan sortzen du lesioa; alde handiz, horietatik gehien gertatzen diren istripuak. Bestalde, istripu guztien % 30,6k gorputz-adarretan du eragina.

LESIONATUTAKO GORPUTZ-ATALA	Istripu kopurua	%
Eskuak	292	22,23
Beheko gorputz-adarrak (oinak izan ezik)	211	16
Goiko gorputz-adarrak, (eskuak izan ezik)	193	14,6
Toraxa, bizkarra eta saihests-aldea	143	10,89
Gerrialdea eta Abdomena	149	11,34
Oinak	130	9,90
Lepoa	58	4,41
Begiak	32	2,43
Lesio ugari	20	1,52
Beste batzuk	84	6,39

IX. Taula: Baja eragin duten istripuak eta lesionatutako gorputz-atala. Maiztasuna eta ehunekoak. 65 enpresatan jasotako datuak.

## 2.4. OINARRIZKO OSASUN UNITATEA DUTEN ENPRESETAKO LANBIDE GAIXOTASUNAK

2006an bezala, ekitaldi honetan ere ez dira aztertu Oinarrizko Osasun Unitateak dituzten enpresetako lanbide-gaixotasunak; horren arrazoia da Osalanen barruan badagoela enpresa horientzako proiektu espezifiko bat, bertako lanbide-gaixotasunen azterketa sakona egiten duena. Beste alde batetik, esan behar da datu hori ez dela erabat betetzen enpresek aurkezten dituzten oroitidazkietan.

## 2.5. OSASUN ADIERAZLEAK, JARDUERA EKONOMIKOARI LOTUTA

### Laneko istripuen adierazleak

OUSen oroitidazki eredu berrian erabiltzen diren indizeak aztertzeko, kalkuluek Osasun Sailaren 1992ko abenduaren 9ko Aginduan zehaztutako formulak hartu dituzte abiapuntutzat –beraren bitartez OUSen dokumentu sanitarioen eredu berriak argitaratu ziren, I. Eranskinean ageri diren kontzeptuak jasoz-.

Enpresen jarduerak Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren –EJSN- arabera sailkatu dira, jarduera horiek biltzen dituzten 10 sail nagusiak erabiliz. Jarduera multzo batzuetan enpresa asko zeudenez, komenigarritzat jo da multzo horiek ere sailkatzea. Era horretan, 10 jarduera multzo egon beharrean 14 jarduera multzo agertzen dira, X. taulan ikus daitekeen bezala. 1. multzotik (Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) ez dago enpresarik, eta, hortaz, jarduera horretako enpresak ez dira agertuko ondorengo tauletan.

Informazio hori osatzeko, mediana erabili da zentrorako joeraren neurri bezala; halaber, gutxieneko eta gehieneko muturrak ere erabili dira, behaketen aldakortasuna ezagutzeko eta enpresa jakin bat gainerakoekin errazago alderatu ahal izateko, eta baita jarduera desberdinak alderatzeko ere.



JARDUERA MULTZOA	EJSN	ENPRESEN JARDUERA
1	011-050	Nekazaritza, Abeltzaintza, Arrantza
2	101-193	Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.
3	201-233 (232 ez)	Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak
4	232,241-268	Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak
5	271-275	Metalurgia
6	281-297	Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena
7	300-335	Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena
8	341-372	Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.
9	401 y 410	Ura biltza/banatztea. E. elektrikoa ekoiztea/banatztea.
10	451-455	Eraikuntza
11	501-555	Merkataritza. Ostalaritza
12	601-642	Garraioa
13	651-672-701-804 900-990	Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduerak batzuk.
14	851-853	Jarduera sanitarioak

X. Taula: Enpresen Ekonomia Jardueraren Multzoak, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren (EJSN 1993) arabera eginda.

### Maiztasun Orokorreko Indizea

XI. taulan ikus daiteke, medianari begiratu, istripu-tasarik handiena 9. jardueraren multzoan (ura biltzea eta banatztea / energia elektrikoa ekoiztea eta banatztea) dauden enpresei dagokiela; beraren ostean, 3. multzoa dator (Zuraren industria, Arte grafikoak). Datu hori aldatu egin da aurreko bi urteetako datuen aldean.

ENPRESA-JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	108,8	10,4	207,2
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	295,8	295,8	295,8
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak	9	100,1	21,8	163,5
Metalurgia	8	131,5	18,4	321,4
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	4	92,4	26,1	232,5
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	128,9	96,4	157,2
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	4	90,7	3,4	334,8
Ura biltza/banatztea. E. elektrikoa ekoiztea/banatztea.	4	341,9	35	983,4
Eraikuntza	1	135,1	135,1	135,1
Merkataritza. Ostalaritza	3	55,6	40,6	71,5
Garraioa	5	244,68	46,1	851,9
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduerak batzuk.	7	128,7	31	289,6
Jarduera sanitarioak	3	94,6	58,6	125,6
<b>Guztira</b>	<b>65</b>	<b>149,9</b>	<b>3,4</b>	<b>983,4</b>

XI. taula: Maiztasun Orokorraren Indizea (baja dakarten istripuak eta baxerik gabekoak), enpresa-jardueraren arabera (MOI: istripuen osoko kopurua / milioi bat lanordu).



Maiztasun orokorreko indize txikiena, berriz, 11. multzoko jardueretan aurkitzen dugu (Merkataritza, Ostalaritza), eta beraren ostean 8. multzoa dator (Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk).

Badira inongo istripurik deklaritzen ez duten enpresak, ez baja dakarren istripurik eta ezta bajarik gabeko istripurik ere. Seguruekin, hori gertatzen da enpresa horiek deklaraziotik kanpo uzten dituztelako, ez istripurik ez dagoelako.

### Baja eragin duten Laneko Istripuen Maiztasun Indizea

ENPRESA JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	44,6	44,6	44,6
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	46,4	46,4	46,4
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak	9	30,2	4,3	69,8
Metallurgia	8	35,6	8	67,3
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	4	26,7	9,4	48
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	55,17	42,2	72,9
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	4	24,8	2,4	47,2
Ura biltza/banatzeta. E. elektrikoa ekoiztea/banatzeta.	4	29,25	14,6	47
Eraikuntza	1			
Merkataritza. Ostalaritza	3	19,3	8,7	34
Garraioa	5	70,1	19	183,8
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduera batzuk.	7	21,8	2,5	45,8
Jarduera sanitarioak	3	37,4	20,1	51
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>36,7</b>	<b>2,4</b>	<b>183,8</b>

XII. Baja eragin duten Istripuen Maiztasun Indizea, enpresa-jardueraren arabera (BIMI: baja eragin duten istripuen kopurua / milioi bat lanordu).

XII. taulan ikusten denez, arriskurik handienak 7. multzoko jardueretan aritzen diren enpreetan daude (material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena), eta txikiak 11. multzoan (Merkataritza eta Ostalaritza).

### Íntzidentzia-indizea

Íntzidentzia-indizea aurrekoaren antzekoa da, kontzeptu moduan; halaber, baja sortzen duten istripuen íntzidentzia-tasa bat da. Dena dela, aurreko indizeak guztira lan egindako orduak hartzen ditu kontuan, eta honek langileen osoko kopuruarekin lotzen ditu istripuak. Horregatik, aurrekoak baino fidagarritasun txikiagoa du, zeren arriskuarekiko esposizioa hobeto neurtzen baita lan egindako denboraren bitartez plantillako pertsonalaren bitartez baino; izan ere, badira emaitzak alda ditzaketan egoerak, hala nola ezintasun iragankorrak, enplegu-erregulazioak, eta abar.

XIII. taulan ikus dezakegunez, indizerik handienak 12. multzoan daude (Garraioa), eta gero 2. multzoan (Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak); txikiena, berriz, 12. multzoko enpresei dagokie (Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste Zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduera batzuk).

Medianari begiratuz, azpimarratzekoa da Hiru Lurraldetako indizerik txikiena Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokiola aurten, 2006an bezala (I. Eranskina – III. taula).



ENPRESA JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	73,49	73,49	73,49
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	68,08	68,08	68,08
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak	9	59,48	6,96	122,15
Metalurgia	8	51,14	13,69	94,4
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	4	43,27	13,7	77,89
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	65,5	47,78	105,8
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	4	36,20	3,66	68,75
Ura biltza/banatzea. E. elektrikoa ekoiztea/banatzea.	4	46,16	23,5	67,35
Eraikuntza	1			
Merkataritza. Ostalaritza	3	34,8	13,7	53,3
Garraioa	5	108,72	37	282,7
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduerak batzuk.	7	34,72	4,76	65,7
Jarduera sanitarioak	3	55,3	28,7	68,8
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>56,4</b>	<b>27,9</b>	<b>95,7</b>

XIII. Taula: intzidentzia-indizea, enpresa-jardueraren arabera (II: baja eragin duten istripuak / mila langile).

### Larritasun-indizea

Larritasun-indizearik handiena (XIV. taula) 12. multzoarena da (Garraioa), eta gero 2. multzoarena (Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak).

ENPRESA JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	1,43	1,43	1,43
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	1,03	1,03	1,03
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak	9	0,74	0,19	1,26
Metalurgia	8	0,70	0,13	1,27
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	4	0,36	0,10	0,81
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	1,50	0,83	2,75
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	4	0,4	0,02	0,78
Ura biltza/banatzea. E. elektrikoa ekoiztea/banatzea.	4	0,86	0,28	2,13
Eraikuntza	1			
Merkataritza. Ostalaritza	3	1,14	0,21	2,05
Garraioa	5	2,09	0,59	4,26
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduerak batzuk.	7	0,62	0,09	1,67
Jarduera sanitarioak	3	0,20	0,02	0,54
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>0,92</b>	<b>0,02</b>	<b>4,26</b>

XIV. Taula: Larritasun-indizea, enpresa-jardueraren arabera (LI: baja dakarten istripuen ondorioz galdutako lanegunak / lan egindako mila ordu).

Larritasun-indizearik txikiena, berriz, 14. jarduera-multzoan dago (Jarduera Sanitarioak), eta gero 8. multzoan (Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk).



## Lanbide-morbilitatearen adierazleak

Jarraian, OUSEk deklaraturako lanbide-gaixotasunei (LG) –baja eragin dutenak- dagozkien indizeak ageri dira; horiek adierazle moduan erabiltzen dira, OUSen dokumentu sanitarioek horretaz diotenarekin bat etorriz.

Urteko Laburpen Estatistikoan OUSEk deklaratu dituzten lanbide-gaixotasunak 42 dira. Horietatik, 2 laneko gaixotasunak dira, 24k baja eragin zuten, eta haien ondorioz 1.050 lanegun galdu ziren.

1º.- Baja eragin zuten Lanbide-gaixotasunen Indizea = 0,07

2º.- Batez besteko Iraupenaren Indizea = 43,75

3º.- Larritasun Indizea = 0,02

## Morbilitate arruntaren adierazleak

### Baja dakarten Gaixotasun Arruntan Maiztasun Indizea

Morbilitate arruntaren Adierazleek zuzeneko lotura dute lan-absentismoarekin. Urteko intzidentzia-tasa baja dakarten gaixotasunen maiztasun indizeak ematen digu; neurtzen duena da zenbat baja gertatzen diren 100 langile bakoitzeko.

ENPRESA-JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	44,25	35	53,5
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	55,3	55,3	55,3
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak	9	100,1	55,6	159,2
Metalurgia	8	47,7	27,2	74,1
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	7	40	5	111,9
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	34,5	26,4	44,9
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	5	27,1	1,56	85,7
Ura biltza/banatztea. E. elektrikoa ekoiztea/banatztea.	4	20	8,4	56,4
Eraikuntza	1	33,3	33,3	33,3
Merkataritza. Ostalaritza	3	29,1	30,7	49,3
Garraioa	6	39,7	3,7	100
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduera batzuk.	7	53,3	21,4	80,9
Jarduera sanitarioak	3	28,6	17,2	37,3
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>46,9</b>	<b>1,56</b>	<b>159,2</b>

XV. Taula: Baja dakarten gaixotasun arruntan Maiztasun Indizea, enpresa-jardueraren arabera (BGMI: gaixotasun arruntek eragindako bajen kopurua / ehun langile).

XV. taulan ikus daitekeenez, 2007an –aurreko urteetan bezala-, absentismorik handiena 4. jarduera-multzoan (Industria kimikoa, plastikoak eta petrolio-finketa) gertatu da: 100 langile bakoitzeko 100,1 baja gertatzen dira urtean.

Datu hori aldatu egin da aurreko urteetako datuen aldean.

Absentismoaren intzidentziarik txikiena 9. multzoari dagokio aurten (ura biltzea eta banatztea. Energia elektriko ekoiztea eta banatztea). Datu hori bai da 2006ko datuaren antzekoa.



## Batez besteko Iraupen-indizea

Gaixotasun arruntek eragindako bajen batez besteko iraupen-indizea XVI. taulan ageri da; bertan ikusten denez, indizearik handiena 12. multzoko enpresei dagokie (Garraioa): bajaren batez besteko iraupena 92 egun da.

2007ko indizearik txikiena, berriz, 2. multzoan dago (Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak): bajaren batez besteok iraupena 15 egun da.

Aurreko urteetan bezala, Arabak du indizearik txikiena (I. Eranskina – VI. Taula).

ENPRESA JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	15,1	8,33	21,9
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	16,13	16,13	16,13
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolio-zko produktu finduak	9	17,42	8,99	36,1
Metalurgia	8	31,39	9,56	78
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	7	31,1	23	40,4
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	38	33,2	40,6
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	5	29,8	7,33	45,7
Ura biltza/banatzea. E. elektrikoa ekoiztea/banatzea.	4	42,4	18,6	93,5
Eraikuntza	1	32,2	32,2	32,2
Merkataritza. Ostalaritza	3	39,4	17,8	72,8
Garraioa	5	92,78	15,6	28,6
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduerak batzuk.	7	31,4	19,3	56,7
Jarduera sanitarioak	3	25,9	22,5	30,2
<b>Guztira</b>	<b>60</b>	<b>36,9</b>	<b>8,33</b>	<b>28,6</b>

XVI. Taula: bajaren batez besteko iraupen-indizea, enpresa-jardueraren arabera. (BII: Gaixotasun arruntagatik galdutako lanegunak / gaixotasunagatik gertatutako bajen kopurua).

## Larritasun-indizea

Gaixotasun arrunten larritasun-indizea interesgarriagoa da absentismoa modu orokorrean baloratzeko, zeren lan egindako orduekin erlazionatzen baititu galdutako lanegunak.

XVII. taulan ikusten denez, aurreko urteetan ez bezala, 4. multzoa (Ind. Kimikoa, plastikoak eta petrolio-finketa) da gaixotasuna arrunten eraginez lanegun gehien galtzen dituenena, eta gero 7. multzoa (material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena). Dena dela, gainerako multzoetan badi-ra enpresa jakin batzuk, ezintasun iraunkorra sortzen duen gaixotasun arruntengatik lanegun gehiago galtzen dituztenak.



ENPRESA JARDUERA	Kopurua	Mediana	Gutxienekoa	Gehienekoa
Erauzketa industriak. Ehungintza. Elikagaiak.	2	4,49	1,83	7,15
Zuraren industria. Papergintza. Arte grafikoak	1	6,08	6,08	6,08
Ind. kimikoa, plastikoak, petrolioeko produktu finduak	9	11,14	2,57	31,17
Metalurgia	8	8,81	4,22	19,06
Metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena	4	6,52	6,19	8,80
Material elektriko eta elektronikoaren ekoizpena	4	11,06	8,5	13,58
Garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk.	4	2,35	0,33	7,72
Ura biltza/banatzea. E. elektrikoa ekoiztea/banatzea.	4	5,31	2,91	6,38
Eraikuntza	1	5,81	5,81	5,81
Merkataritza. Ostalaritza	3	8,99	3,47	23,50
Garraioa	5	8,56	4,11	17,78
Alokairuak. Informatika. Herri Administrazioa. Beste zerbitzu batzuk. Finantza-bitartekaritza. Beste gizarte jarduerak batzuk.	7	6,98	4,64	9,47
Jarduera sanitarioak	3	5,05	3,05	7,05
<b>Guztira</b>	<b>55</b>	<b>7,01</b>	<b>0,33</b>	<b>31,17</b>

XVII. Taula: Gaixotasunen larritasun-indizea, enpresa-jardueraren arabera (LI: baja eragin duen gaixotasun arruntatik galdutako lanegunak / lan egindako mila ordu).

Gaixotasun arrunten larritasun-indizea txikiena 8. multzoari dagokio (garraiorako materialaren ekoizpena. Beste batzuk).

Medianari begiratu gero, azpimarratzekoa da baja eragin duten gaixotasun arrunten maiztasun-indizea handiagoa dela Araban, aurreko urteetan bezala, gainerako bi lurraldeetako indizeak baino. Dena dela, batez besteko iraupen-indizea txikiena Arabakoa da, eta larritasun-indizea txikiena ere Arabak du, aurreko urteetan ez bezala (I. Eranskina – V., VI. eta VII. Taulak).

### 3. LAN BALDINTZEN FITXEN AZTERKETA

Euskal Autonomia Erkidegoko Enpresako Zerbitzu Medikoek bidaltzen dituzten Lan Baldintzen Fitxak (LBF) oinarritzat hartuta –horien eredu ofizialak Osasun Sailaren 92-12-9ko Agindutik datoz-, OSALANek 2007. urteari dagokion Oroitidazkia argitaratzen du oraingoan.

Helburua da lanaren eremuko arrisku-faktoreen aurrean langileek duten esposizio-egoera ezagutzea, eta baita garai horretan gertatutako aldaketak ere ezagutzea.

#### 3.1. MATERIALA ETA METODOAK

Egindako azterketan, 2008. urteari dagozkion 49 LBF aztertu dira.

LBFan dauden item guztien artean, honako hauek grabatu dira: Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalari buruzkoak (EJSN), plantilla, agente bakoitzaren eraginpean dauden langileen kopurua, lan baldintzak, eta prebentzio eta babes neurriak erabiltzen dituzten langileen kopurua. Item horietako bakoitzean, Enpresako Zerbitzu Medikoak bidaltzen digun zenbakizko datua sartu da. Datua bete gabe agertzen denean (Zerbitzu Medikoak bete gabe utzitako datua), "0" balioa kontabilizatu da, hau da, ez dago langilerik arrisku horren eraginpean, edo ez dago agente horren/horien aurrean babestuta dagoen langilerik.



Enpresek gauzatzen dituzten jarduera ekonomikoak EJSNaren arabera adierazten dira, abenduaren 18ko 1.560/92 Errege Dekretuaren arabera; Dekretu horretan ezarri zen orain indarrean dagoen “Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala”.

X. taulak 14 multzotan biltzen ditu EAEko enpresen jarduera ekonomikoak, eta baita haiei dagozkien EJSNak ere. Aurreko urteetan bezala, 1. jarduerari dagozkion arriskuak azterlan hone-tatik kanpo utzi ditugu –jarduera horretan nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza daude-, zeren sek-tore horretan ez baitago eraturta inolako Enpresako Zerbitzu Medikorik.

Egindako azterketa deskribatzailea da; laneko arrisku-faktore bakoitzaren maiztasun abso-lutu eta erlatiboen emaitzak erakusten ditu, enpresaren jarduera ekonomiko motaren arabera (EJSN).

Zarata askoz ere sakontasun handiagoz aztertu da, zeren LBFk zehaztasun handiagoz jasotzen baitu agente horrekiko esposizioa. Zaratari aurre egitera zuzendutako babes neurrien era-bileraren maiztasuna kuantifikatu zen, zarata maila eta enpresaren jarduera mota kontuan hartuta; horretarako baldintzatu gabeko erregresio logistikoko azterketa bat egin zen. Azterketa egiteko, 3 maila ezarri ziren: >80-84 dB(A); 85-89 dB(A), eta 90 dB(A)tik gorako balioak. Babes neurrien era-bilera honela kodifikatu zen: “ez” = 0; “bai” = 1.

### 3.2. EMAITZAK

EAE osoaren eremuan (XVIII. taula), 2007. urtean 49 LBF aztertu ziren, enpresa hauetakoa-k: Arabako 13 enpresa, 11045 langilerekin; Gipuzkoako 3 enpresa, 866 langilerekin; eta Bizkaiko 33 enpresa, 13469 langilerekin.

Aztertutako langileen osoko kopurua 25380 da, 2006an baino 3390 gutxiago.

LBF	EAE	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Enpresak	49	33	3	13
Langileak	25380	13469	866	11045

XVIII. Taula: LBF. Enpresa kopurua eta langileen osoko kopurua, Lurralde Historikoen arabera. 2007. urtea

XIX. taulan, LBFak desglosatzen dira enpresen jardueren arabera eta Lurralde Historikoen arabera.

Aztertutako fitxa gehienak 4., 5., 8. eta 12. sektoreetako enpresei dagozkie. Fitxa gutxien dituzten sektoreak 2. jarduera multzokoak (erauzketa industria eta ehungintza) eta 10. jarduera multzokoak dira.

Lurralde Historikoen ikuspuntutik begiratuta, Arabako langileen kopururik handiena 8. mult-zoari dagokio (garraiorako materialaren ekoizpena), 3501 langilerekin, eta 4. multzoari (ind. kimi-koa, plastikoak eta petrolioak), 3301 langilerekin. Kontrako muturrean, berriz, 2. multzoa (erauzke-ta industria, ehungintza) eta 9., 10., 11. eta 12. multzoak daude, langile bat bera ere ez baitute.

Bizkaiaren kasuan, langile kopururik handiena 12. sektoreari dagokio (garraioa), 2179 lan-gilerekin, eta 13. sektoreari (alokairuak, informatika, Herri Administrazioa eta banka), 1893 langile-rekin. Horren ostean, oso gertu, 4. multzoa (industria kimikoa, plastikoak eta petrolio-finketa) eta 9. multzoa (ura biltzea eta banatzea. Energia elektrikoa ekoiztea eta banatzea) datoz, hurrenez hurren 1823 eta 1446 langilerekin. Garrantzitsua da azpimarratzea 3. multzoan (zuraren industria, papergintza eta arte grafikoak) ez dela agertzen langile bat bera ere



Gipuzkoan, 14. multzoak (jarduera sanitarioak) eta 3. multzoak (zuraren industria, papergintza eta arte grafikoak) langileen gehiengoa biltzen dute 2007an, hurrenez hurren 422 eta 307 langile baitituzte. Langile gutxien dituzten multzoak, berriz, hauexek dira: 2. multzoa (erauzketa industria, ehungintza), 4.a (industria kimikoak, plastikoak eta petrolio-finketa), 5.a (metalurgia), 6.a (metalezko produktuen eta makineriaren ekoizpena), 8.a (garraiorako materialaren ekoizpena), 9.a (energia elektrikoaren ekoizpena), 10.a (eraikuntza), 11.a (merkataritza eta ostalaritza), 12.a (garraioa) eta 13.a (alokairuak, informatika, H. administrazioa, banka) dira, langile bat bera ere ez baitute.

JARDUERA	EAE		Bizkaia		Gipuzkoa		Araba	
	Enpr.	Langile kop.	Enpr.	Langile kop.	Enpr.	Langile kop.	Enpr.	Langile kop.
2	1	27	1	27	0	0	0	0
3	5	2210	0	0	1	307	4	1903
4	8	5124	7	1823	0	0	1	3301
5	4	1923	2	1059	0	0	2	864
6	6	1411	5	1212	0	0	1	199
7	4	1254	2	925	1	137	1	192
8	3	4266	1	765	0	0	2	3501
9	3	1446	3	1446	0	0	0	0
10	1	149	1	149	0	0	0	0
11	2	1170	2	1170	0	0	0	0
12	3	2179	3	2179	0	0	0	0
13	6	2007	5	1893	0	0	1	114
14	3	2214	1	821	1	422	1	971
<b>GUZTIRA</b>	<b>49</b>	<b>25380</b>	<b>33</b>	<b>13469</b>	<b>3</b>	<b>866</b>	<b>13</b>	<b>11045</b>

XIX. Taula: LBF. Enpresa kopurua eta haien langileak, jarduera ekonomikoaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2007. urtea.

### 3.3. INGURUNE FISIKOAREN FAKTOREAK

XX. taulak hauxe erakusten du: enpresen kopurua eta arrisku fisikoaren eraginpean egon diren langileen kopurua –eraginpean egon direla dioten langileak-. Bere eraginpean langile gehien izan dituen faktorea esku/beso bibrazioak izan dira, eta gero erradiazio ez-ionizatzaileak, eta –oso gertu- gorputz bibrazioak; azken faktore hori izan zen iazko oroitidazkian bere eraginpean langile gehien izan zituena.

Argitzapen urriaren eta erradiazio ionizatzaileen eraginpean dauden langileak, aldiz, faktore horien eraginpean dauden langileen gutxiengoa dira.



ARRISKU FISIKOAREN FAKTOREAK	Enpresak	Eraginpean dauden langileen kopurua
Lantokiko azalera ez-nahikoa	3	94
Argiztapen urria	0	0
Estres termikoa	7	225
Beso-esku bibrazioak	9	434
Gorputz bibrazioak	8	323
Erradiazio ez-ionizatzaileak	12	325
Erradiazio ionizatzaileak	6	108

XX. Taula: Arrisku fisikoaren faktoreen eraginpean egondako enpresa eta langileen kopuruak. 2007. urtea.

XXI. taulak langile horiek jarduera-multzoen arabera duten banaketa aurkezten du, eta baita enpresen kopurua eta agente fisikoen eraginpean dauden langileen osoko kopurua ere.

Arrisku faktoreei begiraturaz, lantokiko azalera nahikoa ez izatearen eragina pairatzen duten langileak 4. multzokoak (industria kimikoa, plastikoak...) dira gehienbat, zeren 72 langile baitaude arrisku horren eraginpean.

Argiztapen urriak sortzen duen arriskuari dagokionez, aipatzekoa da aurten ez dagola inongo langilerik arrisku horren eraginpean. 4. jarduera-multzoa (i. kimikoa, plastikoak...) da estres termikoaren alorrean gehien nabarmentzen dena: 133 langile daude arrisku horren eraginpean. Beso-esku bibrazioei dagokienez, 8. multzoa (garraiorako materialaren ekoizpena) da gehien nabarmentzen dena, arrisku horrek 190 langile ukitzen baititu.

Gorputz osoko bibrazioei dagokienez, 4. jarduera-multzoa (i. kimikoa, plastikoak...) azpimarratu behar da, bertako 177 langile arrisku horrekiko esposizioa baitute. Alde horretatik, nabarmendu behar da arriskuaren eraginpean dauden langileen kopurua oso gutxi jaitsi dela: 2 langile soilik.

Erradiazio ez-ionizatzaileen kasuan, 5. multzoa (metalurgia) izan zen iaz gehien nabarmendu zena, 215 langilerekin; aurten, aldiz, ez dago langile bat ere ez arrisku horren eraginpean; aurten, 8. multzoa (garraiorako materialaren ekoizpena) da langile gehien dituen arrisku horren eraginpean: 122 langile. Erradiazio ionizatzaileen kasuan, berriz, 5. multzoaren kopurua erabat aldatu da iaztik hona, zeren 53 langile izatetik langile bat ere ez izatera pasatu baita, arrisku horren eraginpean egoteari dagokionez. Erradiazio ionizatzaileen alorrean aurten nabarmendu dena 3. multzoa (zuraren industria, arte grafikoak eta papergintza) izan da: 42 langile arrisku horren eraginpean.



ARRISKU FAKTOREA	ENPRESEN EKONOMIA JARDUERAREN MULTZOA.														
	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	GUZTIRA E.	GUZTIRA L.
Lantokiko azalera ez-nahikoa	-	-	72	-	-	-	-	-	-	17	-	5	-	3	94
